

BALIO PROPOSAMENA

Zein behar edo arazo konpontzen dugu?



Gaur egun edozein dokumentu, curriculum, fitxa,.. inprimatzeko inprimagailura jo behar dugu, eta normalean, inprimagailua ez da ordenagailutik gertu egoten; lanean jarduten ari garen lekutik altxa eta inprimagailura hurbildu behar izaten gara. Egungo gizartea nolakoa den ikusita, dena azkarrago lortzeko eskari handi bat dagoela ikusi dugu; dena ahalik eta azkarren lortu nahi dugu. Inprimagailura gerturatzeko altxatzen garenean dugun denbora galtze hori ekiditeko eta prozesua errazagoa izateko ideia bat bururatu zaigu, inprimagailua ordenagailuan bertan txertatuta egotea. Ordenagailuak bolumen berdina edukiko luke, A4 motako orriak banaka sartu beharko lirarteke ordenagailuaren beheko zatian, eta nahi dugun dokumentua momentuan bertan paperean edukitzeko aukera edukiko genuke. Nahiz eta ez dagoen gauza asko inprimatzeko bideratuta, oso praktikoa izan daiteke egunerokoa ordenagailuarekin lanean aritu behar diren pertsonentzat, hau da, ia gehiengoarentzat. Imaginatu dezakezu, unibertsitateko klase bat bukatu eta liburutegi batera joateko beharrik izan gabe momentuan bertan klaseko apunteak paperean inprimatu ahal izatea? Edota etxean inprimagailua ez dutenek momentu batean nahi den guztia inprimatu ahal izatea? Gure produktuarekin hori errealitate bihur daiteke.

Diseinua: Gure ideia, itxuraz portatil arrunt bat sortzea da, nahiko fina izango dena, garraiatzeko erraza. Baina azpialdean, aldameneko prototipoan ikusi daiteken bezalaxe, orriak sartzeko tarte bat gehituko genuke. Gure helburua, teknologia honekin orria aurretik (banaka) sartu eta atzetik ateratzea litzateke. Beharrezkoak diren tintak ordenagailuaren eskuinaldean kokaturik egongo lirarteke. Gazteak izanik, oso ondo ezagutzen ditugu gaurkotasunean arrakasta gehien duten produktuen itxurak, eta badakigu, hain zuzen ere, egungo gizartean norbere gailuen itxura txukunak garrantzia duela, horregatik, gure produktua berritzailea izateaz gain itxura modernokoa izango litzateke.



Prezioa: Azpimarratzekoa da, gure ordenagailua ez litzatekela ordenagailu arrunt bat baino askoz ere garestiagoa izango, gaur egun eskuragarri dauden baliabideekin horrelako produktu bat sortzea ez baita ikaragarri zaila. Hala ere, ordenagailu arrunt batek baino funtzio gehiago betetzen ditu. Horregatik, hori bezeroentzat garrantzitsua dela uste dugu. 800€ inguruko prezioaogatik gure ordenagailua eskuratzeko aukera egongo litzateke.

Zerk bereizten gaitu lehiakideengandik?



Praktikotasunak batik bat: Proiektu berri honekin inprimagailua ordenagailuan bertan integratuta legoke. Gure lehiakideek, ordenagailu sortzaileek etab. ez dute berrikuntza hau txertatuta beraien ordenagailuetan, eta hortxe dago gakoa. Beraz, esan daiteke bereizgarri egiten gaituena lana errazten dugula da. Gure produktuarekin, 2 objekturen funtzioa objektu bakarrarekin asetu dezakegu, orain arte merkaturatu ez den gailu batekin.